OIARTZUNGO
UDALA

2021KO
UDAL
ZERGA
ORDENANTZAK

AURKIBIDEA/INDICE

1	**ORDENANTZA OROKORRA. ZERGEN ETA TOKI ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA BILKETA ARAUTZEN DUENA** ORDENANZA GENERAL DE GESTION Y RECAUDACION DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES		5
2	**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES		14
3	**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS		19
4	**TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA		21
5	**ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS		7
6	**HIRI-LURREN BALIO-GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA		32
7	**ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERA BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS PRECIOS PÚBLICOS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS O LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES MUNICIPALES.		36
	7.1	**Madalensoroko aparkalekuaren erabilpena** Utilización del aparcamiento de Madalensoro	38
	7.2	**Lar ustiaketa** Aprovechamiento de pastos	38
	7.3	**Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua** Servicio de Ayuda Domiciliaria	38
	7.4	**Animali arriskutsuak Erregistroan inskribatzea** Inscripción de animales peligrosos en el Registro	39
	7.5	**Beilatokiko erabileraren prezio publikoa** Precio público por uso de tanatorio municipal	39
	7.6	**Udal zerbitzu eta instalazioak erabilera pribatibuetarako erabiltzeagatik** Por utilización privativa de servicios e instalaciones municipales	41
	7.7	**Poligonoetako aparkaleku plazen erreserbagatiko prezio publikoa** Precio público por reserva de plazas de aparcamiento en los polígonos industriales	40

	7.8	**Udal kirol instalazioen erabilpena** Utilización de las instalaciones deportivas municipales	40
	7.9	**Arditurriko Meategien prezio publikoak** Precios públicos de las Minas de Arditurri	45
	7.10	**Udal materiala erabiltzeagatiko prezio publikoak** Precios públicos por la utilización de material municipal.	44
8	**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO USTIAPEN BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA** ORDENANZA REGULADORA DE TASA POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL		45
	8.1	**Hesiak, andamioak, zutabeak eta eustagak eta eraikuntza materialengatiko tasa** Tasa por vallas, andamios, puntales y asnillas y materiales de construcción	49
	8.2	**Erabilera pribatu eta kolektiboko etxalde eta orubeetako aparkalekuetarako pasabideak** Pasos de aceras para estacionamiento en terrenos y edificios de uso privado y colectivo	49
	8.3	**Udal bide publikoaren lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatibo edo ustiapen bereziagatiko tasa** Tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales.	50
	8.4	**Hornikuntza zerbitzuak ustiatu eta merkaturatzen dituzten enpresei udal bide publikoaren lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa** Tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras y comercializadoras de servicios de suministro	50
	8.5	**Energia elektrikoaren, gasaren, uraren eta hidrokarburoen garraiorako instalazioen aldeko udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik tasa** Tasa por ocupación y aprovechamiento especial del dominio público por redes de transporte de energía eléctrica, gas, agua e hidrocarburos.	51
9	**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA** ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.		59
	9.1	**Interesatuak horrela eskaturik, udal administrazioak edo udal agintariek luzatu edo aztertuko dituzten dokumentuengatiko tasa** Tasa por los documentos que expidan o que entiendan la administración municipal o autoridades municipales, a instancia de parte	62
	9.2	**Auto-taxi eta gainerako akurako ibilgailuen lizentzia eta baimen administratiboak emateagatiko tasa** Tasa por otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de auto-taxi y demás vehículos de alquiler	63
	9.3	**Lurzoruaren legeko 178 artikuluak exigitutako hirigintza lizentziak emateagatiko tasa** Tasa por otorgamiento de licencias urbanísticas exigidas por el art. 178 de la Ley del Suelo	63

	9.4	**Establezimenduen irekitze lizentzia emateagatiko tasa** Tasa por otorgamiento de licencia de apertura	64
	9.5	**Udal hilerrietan zerbitzuak eta kontzesioak emateagatiko tasa** Tasa por prestación de servicios y concesiones en los cementerios municipales	68
	9.6	**Udal ur hornidura eta estolderia zerbitzua emateagatiko tasa** Tasa por el servicio de suministro de agua y alcantarillado	68
	9.7	**Hiri hondakin solidoak biltzeagatiko tasa** Tasa por recogida de residuos sólidos urbanos	71
	9.8	**Estolderia partikularren zaintza bereziagatiko tasa** Tasa por vigilancia especial de las alcantarillas particulares	74
	9.9	**Ibilgailuak ibilgetu eta bide publikotik jasotzea eta berauen ondorengo zaintza zerbitzuagatiko tasa** Tasa por la prestación del servicio de inmovilización y retirada de vehículos de la vía pública y subsiguiente custodia de los mismos.	78
	9.10	**Sustatzaile partikularrek Udalaren kartografia guneratzeagatik ordaindu beharreko tasa** Tasa al promotor para la actualización de la cartografía municipal	76
	9.11	**Garraio zerbitzuagatiko tasa** Tasa por el servicio de transporte	77
	9.12	**Eukara, Kultura eta Gaztedia eta Kiroletako departamentuetatik eskainitako emanaldi, kurtso, eta abar.** Tasa por actuaciones, cursos, etc ofrecidos por los departamentos de Euskara, Cultura y Juventud y Deportes.	77
	9.13	**Txakurrak jaso eta gordetzeagatik tasa** Tasa por recogida y guarda de perros	78
10	**KONTRIBUZIO BEREZIETAKO ZERGA ORDENANTZA OROKORRA** ORDENANZA FISCAL GENERAL DE CONTRIBUCIONES ESPECIALES		79

ORDENANTZA OROKORRA. ZERGEN ETA TOKI ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA BILKETA ARAUTZEN DUENA

ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN Y RECAUDACIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. **Xedapena**

Ordenantzaren xedea da araudizko boterea erabiltzea, Toki Erregimenak Arautzen dituen legearen 106.2 artikuluak onartua. Eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak Udalak zehaztu edo garatu behar dituen gaiak arautzeaz gain, Zerga Ordenantzaren hainbat alderdi arautzen ditu, azken hauek errepikatzea ekidinez.

2. artikulua. **Lege Erregimena**

Zerga kredituen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarreren diru-bilketaren gestioa honela arautuko da:

1. Oiartzungo Udalaren kudeaketa eta dirubilketarako Ordenantza honen bitartez.
2. Zerga Foru Arau Orokorra. Martxoak 8ko 2/2005 Foru Araua.
3. Toki Ogasunen Foru Araua, Uztailak 5eko Foru Araua 11/1989.
4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erreglamendua, Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua.

3. artikulua. **Zerga Egutegia**

Epemuga izan eta jakinarazpen orokorreko Udal zergak ordaintzeko borondatezko epeak hauek dira:

Urtean behineko zerga eta petxak

- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), maiatzaren 10tik ekainaren 30era.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ), urriaren 1etik azaroaren 10era.
- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ), martxoaren 1etik apirilaren 30era.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. **Objeto**

El objeto de esta Ordenanza General es ejercer la potestad reglamentaria reconocida en el art. 106.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de Bases del Régimen Local, regulando las materias que precisan concreción o desarrollo por parte del Ayuntamiento, además de regular aspectos comunes a diversas Ordenanzas Fiscales, evitando así la reiteración de los mismos.

Artículo 2. **Régimen Legal**

La gestión recaudatoria de los créditos tributarios y demás ingresos de derecho público locales se regirán por:

1. La presente Ordenanza de Gestión y Recaudación del Ayuntamiento de Oiartzun.
2. La Norma Foral General Tributaria, Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo
3. La Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, Norma Foral 11/1989, de 5 de julio
4. El Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

Artículo 3. **Calendario Fiscal**

Los períodos de pago voluntario de los tributos municipales de vencimiento periódico y notificación colectiva son:

Pagos anuales de impuestos y tasas

- Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI), del 10 de mayo al 30 de junio.
- Impuesto de Actividades Económicas (IAE), del 1 de octubre al 10 de noviembre
- Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM), del 1 de marzo al 30 de abril.

Seihileroko zerga eta petxak

- Zaborrak
  - Lehenengo ordainketa: maiatzaren 3tik ekainaren 30era.
  - Bigarren ordainketa: urriaren 1etik azaroaren 10era.
- Ura eta estolderia. Fakturazioa lau hilabeterokoa izango da, eta borondatezko ordainketa epea bi hilabetekoa.

Zerga egutegiaren iragarkiak kobratze iragarkia argitaratzeko funtzioa bete dezake.

4. artikulua. **Kudeaketa Organoak**

Dirubilketa kudeaketa egitea ondorengo organoei dagokie:

1. Alkatea:

   a) Zerga errolda, kitapen eta borondatezko epeko erreziboei buruzko Birjarpen errekurtsoak erabakitzen ditu.
   b) Ordainketa epea luzatu edo zatikatzeko eskaerei erantzuten die, horien epea urtebete baino motzagoa denean eta/edo 6.000 € baino gutxiagoko kopurua denean.
   c) Hirugarrengotza erreklamazioak erabakitzen ditu.
   d) Bahitutako ondasunak besterenganatzea baimentzen du.
   e) Udalaren ondasunak adjudikatzea erabakitzen du.
   f) Beste organoei eman ez zaizkien funtzio guztiak egiten ditu.

2. Errentak eta Diru-bilketako Teknikaria

   a) Dirubiltze kudeaketa zuzentzen du borondatezko epean eta exekuzio epean.
   b) Premiamendu probidentziak ematen ditu.
   c) Bahiketa probidentziak eta bahitutako ondasunen salmenta probidentziak ematen ditu.
   d) Exekuzio epean egiten diren birjarpen errekurtsoak erabakitzen ditu.

Pagos semestrales de impuestos y tasas

- Basuras
  - 1er pago: Del 3 de mayo al 30 de junio
  - 2º pago: Del 1 de octubre al 10 de noviembre
- Agua y Alcantarillado: La facturación será cuatrimestral, siendo el período de pago voluntario de dos meses.

El anuncio del calendario fiscal podrá cumplir la función de publicar el anuncio de cobranza.

Artículo 4. **Órganos de gestión**

La gestión recaudatoria corresponde y se realiza por los siguientes órganos:

1. El Alcalde:

   a) Resuelve los recursos de reposición contra los padrones fiscales, liquidaciones y recibos en período voluntario.
   b) Resuelve las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento de pago cuyo plazo sea inferior al año y/o su importe no exceda de 6.000 €
   c) Resuelve las reclamaciones de tercerías.
   d) Autoriza la enajenación de los bienes embargados.
   e) Resuelve la adjudicación de bienes al Ayuntamiento.
   f) El ejercicio de todas las funciones no atribuidas legalmente a otros órganos.

2. El Técnico de Rentas y Recaudación:

   a) Dirige la gestión recaudatoria en pago voluntario y en período ejecutivo.
   b) Dicta las providencias de apremio.
   c) Dicta las providencias de embargo y las de venta de bienes embargados.
   d) Resuelve los recursos de reposición en período ejecutivo.

e) Konpentsazioak erabakitzen ditu, ordaintzera behartua dagoenak eskatuta
f) Ofizioz Erakunde Publikoen kredituak konpentsatzen ditu.
g) Exekuzio prozedura eteteko eskaerak erabakitzen ditu.
h) Kreditu kobraezinak deklaratzen ditu.
i) Zorretan ardura deribazioak erabakitzen ditu zergetakoak nahiz bestelakoak izan.
j) Bahitutako ondasunak baloratuko dituen funtzionario teknikoa izendatzen du.
k) Enkantean atera eta inori adjudikatu ez zaizkion ondasunak Udalarentzat adjudikatzearen egokitasunaz informatzen du.

3. Ogasun Batzordea:

a) Goian aipatu ez direnak

5. artikulua. **Diru-bilketa Sistema**

Zuzenbide publikoko zerga eta diru-sarreren diru-bilketa ondoren aipatzen den eran egingo da:

1. Aldiroko epemuga eta jakinarazpen orokorreko erreziboak.

a) Borondatezko epean, Udalaren baimena izan eta Lankidetzan aritzen diren Erakundeen bidez. Hala helbideratutako erreziboak nola helbideratu gabekoak.

- Helbideratutako erreziboa interesatuak adierazitako kontuan kobratuko da.
- Helbideraketak, eskatu eta ondorengo zerga epealdian izango du eragina.
- Helbideratu gabeko erreziboa zordunaren zerga helbidera bidaliko da, hori aurkeztu eta edozein Erakunde Lankideetan ordain dezan. Aipatutako agiria ez edukiz gero, zordunak Udal Dirubilketa Bulegoan eskatutako du borondatezko epearen barruan.

e) Resuelve las compensaciones a instancia del obligado al pago.
f) Compensa de oficio los créditos de las Entidades Públicas.
g) Resuelve las solicitudes de suspensión del procedimiento ejecutivo.
h) Declara los créditos incobrables.
i) Dicta las desviaciones de responsabilidad de deudas tributarias y no tributarias.
j) Designa el funcionario técnico que valore los bienes embargados.
k) Informa sobre la utilidad de la adjudicación a favor del Ayuntamiento de bienes no enajenados en subasta.

3. La Comisión de Hacienda:

a) Las no recogidas en los anteriores

Artículo 5. **Sistema de Recaudación**

La recaudación de los tributos e ingresos de derecho público se realizarán de la siguiente forma:

1. Recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva:

a) En periodo voluntario, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por el Ayuntamiento, tanto el recibo domiciliado como el recibo no domiciliado.

- El recibo domiciliado será cargado en la cuenta facilitada por el interesado.
- La domiciliación tendrá efecto el periodo impositivo siguiente al de solicitud de domiciliación.
- El recibo no domiciliado será enviado al domicilio fiscal del deudor, para su presentación y pago en cualquiera de las Entidades Colaboradoras. Si no se dispusiese del referido documento, el deudor lo solicitará en la Oficina de Recaudación Municipal, dentro del período voluntario.

b) Exekuzio epean Udal Dirubilketa Bulegoan edo jakinarazpenean adierazten den lekuan.

2. Zerga eta Zuzenbide publikoko bestelako dirusarreren kitapena.

   a) Borondatezko epean, Udalaren baimena izan eta Lankidetzan aritzen diren Erakundeen bidez eta Udal Dirubilketa Bulegoan. Derrigorrezkoa izango da interesatuari dagokion kitapenari buruzko jakinarazpen indibiduala aurretik egitea.
   b) Exekuzio epean, Udal Dirubilketa Bulegoan edo dagokion jakinarazpenak adierazten duen lekua.

3. Hiri ondasunak

Interesatuari jakinarazitako ebazpenean jartzen duen leku eta eran.

4. Salaketak eta isunak

   a) Salaketak, Udalaren baimena izan eta Lankidetzan aritzen diren Erakundeen bidez eta Udaltzaingoaren bulegoan.
   b) Isunak, borondatezko ordainketa eta exekuzio epean, Udalaren baimena izan eta Lankidetzan aritzen diren Erakundeen bidez eta Udal Dirubilketa Bulegoan.

6. artikulua. **Helbidea**

Zergadunak adierazitako helbide fiskala edo udalak eskura dituen informazio iturriak erabilita zuzendutakoa, zergadun bakoitzarekin lotura izango duen kudeaketa elementua izango da, zerga jakinarazpenak bertara bidaliko direlarik.

7. artikulua. **Ordainketak atzeratu eta zatitzeko modua.**

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketako Erreglamenduaren 36. art. aurreikusitakoaren arabera, Oiartzungo

b) En período ejecutivo, en la Oficina de Recaudación Municipal o lugar que se indique en la notificación correspondiente

2. Liquidaciones de las tributos y otros ingresos de derecho público.

   a) En período voluntario, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por el Ayuntamiento y en la Oficina de Recaudación Municipal. Será necesaria la notificación individual y previa al interesado de la liquidación correspondiente.
   b) En período ejecutivo, en la Oficina de Recaudación Municipal o lugar que se indique en la notificación correspondiente.

3. Recursos urbanísticos.

En el lugar y forma señalado en la resolución notificada al interesado.

4. Denuncias y sanciones:

   a) Las denuncias, en las Entidades Colaboradoras autorizadas a tal efecto y en la Oficina de la Policía Local.
   b) Las sanciones, el pago voluntario y en período ejecutivo, en las Entidades Colaboradoras autorizadas a tal efecto y en la Oficina de Recaudación Municipal.

Artículo 6. **Domicilio**

El domicilio fiscal declarado por el sujeto pasivo, o rectificado por el Ayuntamiento en base a sus fuentes de información, se incorporará como elemento de gestión asociado a cada contribuyente y constituirá la dirección a la que remitir todas las notificaciones derivadas de la gestión recaudatoria.

Artículo 7. **Aplazamientos y fraccionamientos**

1. De acuerdo con lo previsto en el art. 36 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la regulación sobre

Udalak ordainketa atzeratzeko eta zatika ordaintzeko onarturiko araudiak aplikatzeko lehentasuna izango du Erreglamendu hartan xedatuta dagoenarekiko. Izan ere, Erreglamendu hura Oiartzungo Udalak araututa ez duen kasu bakarretan aplikatuko baita era subsidiarioan.

2. Ordainketa atzeratzea edo zatikatzea, ordaindu behar duenak, momentu horretan ordaintzeko adina dirurik ez duenean bakarrik eskatuko da.

3. Ordaintzea atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera Diruntzaintza sailari egingo zaio, honek erabakiko du zordunaren ekonomia egoera nolakoa den eta zorrak ordaintzeko gauza den edo ez.

4. Atzeratzeko edo zatikatzeko zorra ordaintzear dagoen zor guztia hartuko du, eskatzaileak aurretik izan dezakeen zor guztia kontuan hartuta.

5. Zatikatutako zorraren ordainketaren helbideratzea egingo da, ordainketa agindu baten bidez, honen kopia bat aurkeztea beharrezkoa izango delarik.

6. Ordainketa atzeratzeko eta hilabeteka zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauexek dira:
   a) Zorra 250 € baino txikiagoa bada ez da atzerapenik edo zatika ordaintzeko aukerarik emango, baldin eta aparteko arrazoiren bat ez balego. Aparteko arrazoitzat hartuko da Dirusarrera Bermatzeko Errenta kobratzea. Kasu honetan zorrak gutxienez 75 €-koa izan behar du eta zorra gehienez 3 hilabetetan zatikatu edo atzeratuko da.

   b) Zorra 250,01 € eta 500 € tartekoa bada, gehienez ere hiru hilabetez atzeratu edo zatitu ahal izango da.

aplazamientos y fraccionamientos de pago recogida en la normativa aprobada por el Ayuntamiento de Oiartzun será en todo caso de aplicación preferente a la que sobre los mismos se dispone en el citado Reglamento, que sólo será aplicable con carácter subsidiario en aquello que no esté regulado por el Ayuntamiento de Oiartzun.

2. El aplazamiento o fraccionamiento se solicitará por la imposibilidad económica de realizar el pago en el momento actual debido a la situación de tesorería del obligado al pago.

3. Las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento se dirigirán al Departamento de Recaudación a cuyo técnico corresponde la preciación de la situación económico-financiera del obligado al pago en relación con la posibilidad de satisfacer los débitos.

4. El importe de la deuda a fraccionar comprenderá toda la deuda pendiente de pago, incluida la deuda anterior que pudiera tener el solicitante.

5. Se domiciliará el pago de la deuda fraccionada mediante una orden de pago, cuya copia deberán presentar.

6. Los criterios generales de concesión de aplazamientos y fraccionamientos mensuales serán los siguientes:
   a) No se concederá aplazamiento ni fraccionamiento de deudas cuyo importe sea inferior a 250 €, salvo casos excepcionales debidamente probados. Se considerará caso excepcional el cobro de la Renta de Garantía de Ingresos. En estos casos la deuda deberá ser como mínimo de 75 € y podrá fraccionarse o aplazarse por un plazo máximo de tres meses.
   b) Las deudas de importe comprendido entre 250,01 € y 500 € podrán aplazarse o fraccionarse por un período máximo de 3 meses

c) Zorra 500,01 € eta 1000 € tartekoa bada, gehienez ere hiru hilabetez atzeratu ahal izango da, eta zatika ordaintzen bada, gehienez sei hilabetez.

d) Zorra 1000,01 € eta 6000 € tartekoa bada, gehienez ere sei hilabetez atzeratu ahal izango da, eta zatika ordaintzen bada berriz, gehienez hamabi hilabetez.

e) Zorra 6000 € baino handiagoa bada, gehienez sei hilabetez atzeratu ahal izango da, eta zatika ordaindu bada berriz, 18 hilabetez.

f) Ez da atzerapenik edo zatika ordaintzeko aukerarik emango borondatez, zorra exekutiban izango balu.

g) Aipaturiko edozein epe beteko ez balitz, Dirubilketako Erreglamenduak dioenaren arabera jokatuko da. Zorraren ordainketa atzeratuagatik nahiz zatika ordaindu izanagatik, eperen bat beteko ez balitz, ezingo da beste bat onartu 2 urteko epean.

h) Kasu guztietan, ordainketaren atzeratzeak nahiz zatika ordaintzeak, indarrean dagoen urteko interes tasa sorraraziko du.

i) Espedientean jasotako agiriak eta zatika ordaintzeko eskabidearekin ekarritakoa kontuan izanik, Alkateak atzeratzeko edo zatitzeko epeak handitu ahal izango ditu.

7. Ez da bermerik eskatuko ondorengo kasuetan:

a) Ordainketa zatikatuen nahiz atzeratuen eskabideen kasuan, zorra 10000 € baino txikiagoa denean.

b) Prozedura exekutiboan zorra kitatzeko adina ondare erregistro publikoan bahitzeko badaezpadako oharra egin bada, zorra bermatutzat joko da eta ez

c) Las deudas de importe comprendido entre 500,01 € y 1.000 € podrán aplazarse hasta un máximo de 3 meses o fraccionarse por un periodo máximo de 6 meses.

d) Las deudas comprendidas entre 1.000,01 € y 6.000 € podrán aplazarse hasta seis meses o fraccionarse por un período máximo de 12 meses.

e) Las deudas superiores a 6.000 € podrán aplazarse hasta 6 meses o fraccionarse por un periodo máximo de 18 meses.

f) No se concederá aplazamiento o fraccionamiento de deuda en voluntaria en caso de tener deuda en ejecutiva.

g) En caso de incumplimiento de cualquiera de los plazos, se actuará conforme a lo previsto en el Reglamento General de Recaudación. Una vez incumplido algún término del aplazamiento o fraccionamiento no podrá concederse otro en un período de tiempo de 2 años.

h) En todo caso, el aplazamiento o fraccionamiento devengará el interés legal anual vigente.

i) El Alcalde podrá ampliar los periodos de aplazamiento o fraccionamiento conforme a la documentación obrante en el expediente y aportada en la solicitud de fraccionamiento.

7. No se exigirán garantías en los siguientes supuestos:

a) Cuando se trate de solicitudes de fraccionamiento o aplazamiento de hasta 10.000 €.

b) Cuando en el procedimiento ejecutivo se haya realizado anotación preventiva de embargo en registro público de bienes de valor suficiente, se

da beharrezkoa izango berme berria jartzea.

c) Espedientean jasotako agiriak eta zatika ordaintzeko eskabidearekin ekarritakoa kontuan izanik, Alkateak derrigorrezko berme hori ken dezake.

8. artikulua. **Kreditu kobraezinen aitorpenaren proposamena.**

Exekutibako ordainketa epea izapidetu eta igaro ondoren, eraginkortasun administratiboaren eta prozedurazko legalitatearen printzipioarekiko errespetua bateratzearen helburuakin, hainbat irizpide ezartzen dira. Modu honetara, kreditu kobraezinen aitorpenaren proposamenak egiteko aukera ematen da.

Justifikazio modura aurkeztu beharreko dokumentazioa, ezberdina izango da zorraren ezaugarri eta zenbatekoaren arabera. Ondorengo kasuak eman daitezke:

1. Zergadunaren nortasun agiririk ez izatea edo azken hau gaizki identifikatua egoteagatiko zorren espedienteak.
2. Dirubilketako prozeduran egindako hainbat diligentzien ondorioz, besteak beste lortutako zenbatekoen aplikazioa, zorraren deribazioa, eta abar, 6 € baino txikiagoko espedienteak.
3. Zorraren zenbatekoa eta hura ordaintzeko erabilitako bitartekoen arteko proportzionaltasun printzipioa errespetatzeko, oro har, eta beti ere zordunaren IFZ izan eta jakinarazpena behar bezala egin bada, ondorengo egintzak agindu ahal izango dira, kreditua lortzeko beharrezkoak balira:
   a) 30 € bitarteko zorrak:
      - Kontu korrontetik fondoen bahiketa.
   b) 30 eta 300 € tarteko zorrak
      - Kontu korrontetik fondoen bahiketa.
      - Soldaten bahiketa.

considerará garantizada la deuda y no será necesario aportar nueva garantía.

c) El Alcalde podrá dispensar de la obligación de prestar garantía suficiente conforme a la documentación obrante en el expediente y aportada en la solicitud de fraccionamiento.

Artículo 8. **Propuesta de declaración de créditos incobrables.**

Una vez tramitado y transcurrido el plazo de pago en ejecutiva, y con la finalidad de conjugar el respeto al principio de legalidad procedimental con el de la eficacia administrativa, se establecen los criterios con arreglo a los cuales podrán formularse propuestas de declaración de créditos incobrables.

La documentación justificativa será diferente en función de los importes y características de la deuda, distinguiéndose los siguientes supuestos:

1. Expedientes por deudas de contribuyentes sin NIF o no identificado correctamente.
2. Expedientes que, como resultado de las diversas actuaciones del procedimiento recaudatorio tales como aplicación de importes obtenidos, imputación de deuda por derivación, etcétera resulten por importe inferior a 6 €.
3. A efectos de respetar el principio de proporcionalidad entre importe de la deuda y medios utilizados para su realización, con carácter general y siempre que se cuente con NIF. del deudor y se haya practicado válidamente la notificación, si fuere preciso para la realización del crédito se podrán ordenar las siguientes actuaciones:
   a) Deudas hasta 30 €
      - Embargo de fondos en cuentas corrientes
   b) Deudas entre 30 y 300 €
      - Embargo de fondos en cuentas corrientes
      - Embargo de salarios

- 300 €-tik gorako tasazioa duten ibilgailuen bahiketa, ondasun higiezinen jabe ez bada.

c) 300 €-tik gorako zorrak
- Dirubilketako Erreglamendu Orokorraren ezarpena.

Jarduera hauen emaitza negatiboa bada, kreditu kobraezinen aitorpenaren proposamena gauzatuko da.

9. artikulua. **Onura fiskalen kontzesioa**

Zerga salbuespenak, murrizketak eta hobariak ematea edo ukatzea, zerga bakoitzaren araudi bereziaren arabera egingo da, eta hauetan inoiz ez da analogiaren legerik aplikatuko, hots, inoiz ez da zerga zehatz bati dagokiona besteetara ere zabalduko.

Legeak bestelakorik agintzen ez badu, onura fiskalak lortzeko hauek eskatu egin behar dira. Eskaerak alkateari zuzendu beharko dira eskabide orriaren bidez. Honetan eskaeraren arrazoiak agertu behar dira.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioari dagokionez, Oiartzungo Udalak administrazioaren eskura dauden dokumentuak zuzenean kontsultatuko ditu. Hala ere interesdunak, Oiartzungo Udalak datu horiek zuzenean jasotzearen aurka dagoela adierazi dezake eta kasu horretan ezinbestekoa izango da egiaztagiriak aurkeztea.

Oro har, onura fiskalak ez du atzeraeragintasunik, eta beraz, onura fiskala ematea erabaki ondoren, egiten den lehenengo zerga-kobrantzan aplikatuko da.

Bi hilabeteko epea ezartzen da, urtarrilak 1etik otsailak 28a arte, hain zuzen ere, aldizkako eta

- Embargo de vehículos cuya tasación supere los 300 € si no es propietario de inmuebles.

c) Deudas de más de 300 €
- Aplicación del Reglamento General de Recaudación

Cuando el resultado de dichas actuaciones sea negativo, se formulará propuesta de declaración de crédito incobrable.

Artículo 9. **Concesión de Beneficios Fiscales**

La concesión o denegación de exenciones, reducciones y bonificaciones se ajustará a la normativa específica de cada tributo, sin que en ningún caso pueda admitirse la analogía para extender más allá de sus términos estrictos el ámbito de las exenciones o bonificaciones.

Salvo previsión legal expresa en contra, la concesión de beneficios fiscales tiene carácter rogado, por lo que los mismos deberán ser solicitados, mediante instancia dirigida al Alcalde, que deberá acompañarse de la fundamentación que en cada caso fuere necesaria.

En relación con la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos, el Ayuntamiento de Oiartzun consultará directamente la documentación accesible para la administración. No obstante, lo anterior, el interesado podrá denegar expresamente su consentimiento, debiendo, en ese caso, aportar obligatoriamente los documentos justificativos.

Con carácter general, la concesión de beneficios fiscales no tendrá carácter retroactivo, por lo que sus efectos comenzarán a operar desde el momento en que por primera vez tenga lugar el devengo del tributo con posterioridad a la adopción del acuerdo de concesión del beneficio.

Se establece un periodo de 2 meses desde el 1 de enero hasta el 28 de febrero para la

jakinarazpen kolektiboa duten zergen hobari eta salbuespen eskaerak aurkezteko.

presentación de las solicitudes de bonificación o exención, para aquellos tributos periódicos y de notificación colectiva.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2020ko abenduaren 3an onartu zen behin betikoz, eragina 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duelarik.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta ordenanza se aprobó definitivamente el 3 de diciembre de 2020, entrando en vigor el 1 de enero de 2021.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal hau ordenantza honetan oinarritzen da Ondasun Higiezinen gaineko Zerga exijitzeko, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru arauan eta zerga bakoitzari dagokion Foru Arau partikularretan aurreikusten denari jarraiki. Honen eranskina ere, aplikatu beharreko karga-tasak jasotzen dituena, Ordenantzaren atal bat da. Ordenantza hau 2020ko abenduaren 3an onartu zen behin betikoz eta 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

2. artikulua.

Zerga-Ordenantza honek arautzen ez dituen alderdi guztiei dagokienez, Oiartzungo Udalerrian aplikazio zuzena izango du uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzkoak, eta baita hau garatzen duten foru araudiek ere. Zehazki, zerga-egintza zehazteari dagokiona, zergaren subjektu pasiboa eta erantzuleak zehazteari dagokiona, zerga-salbuespenak, zerga-murrizketak eta hobariak, zerga-oinarria eta zerga-likidazioa, zerga-kuota, zergaldia eta zerga sortzea, eta zergaren kudeaketari dagozkionak.

3. artikulua.

Udal honek modu honetan zehazten ditu zerga honen karga-tasak eta hobariak, eranskinean agertzen diren bezala.

II. ERANSKINA

1.KARGA-TASAK

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobre Bienes Inmuebles con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen los tipos de gravamen y bonificaciones aplicables, habiéndose aprobado definitivamente el 3 de diciembre de 2020 y entrando en vigor el 1 de enero de 2021.

Artículo 2.

Será de aplicación directa en el Municipio de Oiartzun la Norma Foral 12/1989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, así como la normativa foral que lo desarrolla, en todos aquellos aspectos no regulados en la presente Ordenanza Fiscal y, en concreto, los referidos a determinación del hecho imponible, del sujeto pasivo y de los responsables del tributo, de las exenciones, reducciones y bonificaciones, de la base imponible y liquidable, de la cuota tributaria, del período impositivo y devengo, así como a la gestión del tributo.

Artículo 3.

Este Ayuntamiento fija el tipo de gravamen y las bonificaciones en los términos que se establecen en el siguiente anexo.

II. ANEXO

1. TIPOS

KARGA-TASA MOTA	%	TIPO DE GRAVAMEN
Ondasun Higiezin hiritarren gaineko Zerga, industria-edo zerbitzu-sektoreko lurzoruan dauden hiri ondasunei dagokiena	0,5419	Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana, para los bienes urbanos situados en suelo industrial o terciario.

Ondasun Higiezin hiritarren gaineko Zerga, gainerako hiri ondasunei dagokiena.	0,1823	Impuesto sobre Bienes de Naturaleza Urbana, para el resto de bienes urbanos.
Ondasun Higiezin landatarren gaineko Zerga.	1,1000	Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Rústica

2. HOBARIAK
2.1 Familia ugariak

2. BONIFICACIONES
2.1 Familias numerosas

Seme-alaba kopurua	%	Números de hijos
3 seme-alaba dituztenentzat	50	Compuestas por 3 hijos/as
4 seme-alaba dituztenentzat	70	Compuestas por 4 hijos/as
5 seme-alaba edo gehiago dituztenentzat	90	Compuestas por 5 o más hijos/as

- Elbarritasuna daukaten seme-alabak bi bezala kontuan hartuko dira.
- Ohiko bizilekuaren gainean aplikagarriak izango dira. Helbide fiskala eta gehienez garaje eta trasteleku bat barnera daitezke kontzeptu honetan.
- Hobari hau indarrean egongo da familia ugariaren aitorpena indarrean dagoen bitartean.
- Hobari hau aplikagarria izan dadin ohiko bizilekuaren balio katastralak ez du 220.000,00 € gainditukо edo familiaren osagai positiboak ez dira 70.000,00 €-ra iritsiko.

Zerga onuraren baldintzen egiaztagiriak ondorengoak dira:

a) Familia ugaria titulua
b) Familiaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenak
c) Balio katastralaren egiaztagiria.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioari dagokionez, Oiartzungo Udalak administrazioaren eskura dauden dokumentuak zuzenean kontsultatuko ditu. Hala ere interesdunak, Oiartzungo Udalak datu horiek zuzenean jasotzearen aurka dagoela adierazi dezake eta kasu horretan ezinbestekoa izango da egiaztagiriak aurkeztea.

2.2 Babes Ofizialeko Etxebizitzak
Kuota osoaren % 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta

- Los hijos/as con alguna minusvalía computarán por dos.
- Serán aplicables sobre la vivienda habitual. Se considera como tal el domicilio fiscal y un máximo de un garaje y un trastero.
- La vigencia de esta bonificación vendrá determinada por la del certificado de familia numerosa.
- Para que esta bonificación sea aplicable será requisito indispensable que el valor catastral del domicilio habitual no supere los 220.000,00 € o que los componentes positivos familiares no lleguen a los 70.000,00 €.

Los justificantes del cumplimiento de los requisitos para el beneficio fiscal son:

a) Título de Familia Numerosa
b) Las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de la Personas Físicas de la familia
c) El certificado del valor catastral.

En relación con la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos, el Ayuntamiento de Oiartzun consultará directamente la documentación accesible para la administración. No obstante, lo anterior, el interesado podrá denegar expresamente su consentimiento, debiendo, en ese caso, aportar obligatoriamente los documentos justificativos.

2.2 Viviendas de Protección Oficial
Bonificación del 50 % de la cuota íntegra del impuesto a las viviendas de protección de

dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren. Hobari honek lehenengo 3 urteetan bakarrik izango du indarra.

2.3 Energia aprobetxamendu sistemak

Ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota osoaren % 50 ekoa, dagokion eraikinean eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak borondatez instalatu badira, betiere indarrean dagoen araudiari jarraiki obra horiek nahitaez egin beharrekoak ez badira. Hobari honek 5 urtez iraungo du, sistema horiek instalatzen direnetik, eta hobaria jasotzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak izatea.

Oharra

Etxebizitza batengatik hobari bakarra eskatu ahal izango da eta ezingo dira pilatu.

3. GAINKARGUAK

3.1 Gainkarguaren zenbatekoa

%75eko gainkargua ezartzen zaie ohiko egoitza ez diren etxebizitzei.

3.2 Ohiko egoitza diren etxebizitzen izaera

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Nahiz eta erroldaturik ez egon ohiko bizilekutzat joko da ondorengo kasutan:

- Zergadunak justifikatu ahalko du bizilekua dela zerga aitorpenak erabiliz. Zerga aitorpenen arteko kontraesanik izanez gero, edo zerga aitorpenik egiteko betebeharrik ez bada, subjektu pasiboaren, errentariaren edo lagapen hartzailearen beste frogabide batzuk aurkezteko aukera izango da. Zerga aitorpenak eta bestelako frogabideak balioztatzeko, txosten idatzi arrazoitua egingo da, eta txosten horrek oinarrituko du

nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez que se otorgue la calificación definitiva. La duración de la bonificación será de 3 años.

2.3 Sistemas de aprovechamiento de energías

Bonificación del 50 % de la cuota íntegra del impuesto a los inmuebles en los que se hayan instalado voluntariamente sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol, siempre y cuando esas obras no sean legalmente obligatorias. Esta bonificación se aplicará durante 5 años, contados a partir de la instalación del sistema, y su aplicación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.

Nota

Solo se podrá solicitar una bonificación por vivienda y no se podrán acumular.

3. RECARGOS

3.1 Cuantía del recargo

Se aplicará un recargo del 75% a las viviendas que no constituyan residencia habitual.

3.2 Definición de residencia habitual

Un inmueble de uso residencial se considerará vivienda habitual, si a la fecha de devengo del impuesto ese inmueble se encuentra ocupado por una o varias personas empadronadas.

A pesar de no encontrar personas empadronadas se tomará como vivienda habitual cuando:

- El contribuyente pueda justificar por medio de declaraciones tributarias que se trata de su vivienda habitual. En caso de contradicciones en las declaraciones o en caso de no existencia de obligación de efectuarlas, se habilitará para la presentación de otros medios de prueba por parte del sujeto pasivo, arrendatario o cesionario. Tanto la valoración de las declaraciones tributarias como los medios de prueba distintos de las mismas serán

eskumena duen udal organoak hartutako erabakia.

Zergadunak, etxebizitzan inor erroldatuta egon ez arren, ohiko egoitza dela ziurtatzeko honako frogabideak erabili ahal izango ditu:

a) Ur kontsumoaren bidez: ur-kontagailu indibidualen kasuan aurreko urteko ur kontsumoa 30 m^3-koa izatea. Ur-kontagailu komunitarioen kasuan komunitatearen administratzailearen urteko ur kontsumoaren zenbatekoa adierazi beharko du ziurtagiri batean.

b) Uraren kontsumoaren bidez ezinezkoa bada, argindarraren gutxieneko urteko kontsumoa 1.200 kW dela ziurtatuz egin ahal izango da.

c) alokatutako etxebizitzen kasuan urtero kontratua aurkeztu beharko du zergadunak eta alokairua mantentzen dela egiaztatu beharko du.

Zergadunak justifikatu ahalko du ondasun higiezinean bizilekua ematen dela baldin eta bizilekua egiaztatzen bada 183 egun baino gehiago urtean.

3.3 Salbuespenak

Gainkargu honi, salbuespen hauek aplikatu ahal izango zaizkio:

a) Bere helburuen artean ondasun higiezina errentan ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.

b) Arrazoizko baldintzengatik alokatzea edo saltzea eragozten duten aldi baterako eraikuntza inguruabarrak dituzten ondasun higiezinak. Inguruabar horiek balioztatzeko txostena, eskumena duten udal zerbitzu teknikoek egingo dute.

c) Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako direnak. Salbueste hau

objeto de informe escrito motivado que fundamentará la decisión que se adopte por el órgano municipal competente.

El contribuyente, aunque no haya nadie empadronado en la vivienda, podrá justificar que la vivienda es habitual medianto los siguientes medios de prueba:

a) Mediante el consumo de agua: en caso de contadores de agua individuales el consumo mínimo de agua del ejercicio anterior deberá ser de 30 m^3. En caso de contadores de agua comunitarios, el administrador de la comunidad deberá certificar el consumo de agua anual.

b) Si no fuera posible mediante el consumo de agua, se podrá comprobar mediante un consumo de energía eléctrica mínimo anual de 1.200 kW.

c) en caso de viviendas alquiladas, el contribuyente deberá presentar anualmente el contrato y deberá justificar que sigue en vigor.

El contribuyente pueda justificar que se da la residencia habitual acreditando una ocupación del inmueble por un período superior a 183 días al año.

3.3 Exenciones

A este recargo, se le podrán aplicar las siguientes exenciones:

a) Los inmuebles puestos a disposición de alguna entidad pública que tenga entre sus fines la puesta en alquiler de los mismos

b) Los inmuebles que cuenten con circunstancias de índole constructiva que impidan su venta o alquiler en condiciones razonables. El informe de valoración de tales circunstancias se realizará por los servicios técnicos municipales competentes.

c) Los inmuebles dedicados a actividades profesionales o comerciales de forma

aplikatzeko, nahitaezkoa izango da higiezinaren katastroko titularra izatea, edo, hala badagokio, jardueraren titularrari errentan emateko kontratu bat izatea, urtebetekoa edo luzeagoa. Kontratua idatziz jasota ez badago, kontratu hori badela egiaztatu beharko da, egoki irizten diren frogabideak erabiliz.

d) Jaraunspenez eskuratutako etxebizitzak, eskuratu zirenetik bi urte baino gehiago iragan ez badira

Oharra: Bai hobariak, bai gainkarguaren salbuespena edo ohiko bizilekua dela ziurtatzeko bi hilabeteko epea izango du zergadunak, Urtarrilaren 1etik otsailaren 28a arte.

continuada. La aplicación de esta exención exigirá la condición de titular catastral del inmueble o, en su caso, la existencia de un contrato de arrendamiento en favor del titular de la actividad por plazo superior o igual a un año. Si el contrato no consta por escrito deberá justificarse su existencia mediante los medios de prueba que se consideren pertinentes.

d) Las viviendas adquiridas por herencia cuando no hubieran transcurrido dos años desde que fueran adquiridas.

Nota: El contribuyente dispondrá de un plazo de dos meses para solicitar tanto las bonificaciones como la exención del recargo, así como para justificar la vivienda habitual. Desde el 1 de enero hasta el 28 de febrero.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal hau ordenantza honetan oinarritzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga exijitzeko, Lurralde Historikoko Toki-Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ta zerga bakoitzari dagokion Foru Arau partikularretan aurreikusten denari jarraiki. Honen eranskina ere, aplikatu beharreko ehunekoen taulak eta karga-tasak jasotzen dituena, Ordenantzaren atal bat da. Ordenantza hau 2020ko abenduaren 3an onartu zen behin-betikoz eta 2021eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

2. artikulua.

Zerga ordenantza honek arautzen ez dituen alderdi guztiei dagokienez, Oiartzungo Udalerrian aplikazio zuzena izango du apirilaren 20ko 1/1993 Foru Arauak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzkoak, eta baita hau garatzen duten foru araudiek ere. Zehazki, zerga-egintza zehazteari dagokiona, zergaren subjektu pasiboa eta erantzuleak zehazteari dagokiona, zerga-salbuespenak, zerga-murrizketak eta hobariak, zerga-oinarria eta zerga-likidazioa, zerga-kuota, zergaldia eta zerga sortzea, eta zergaren kudeaketari dagozkionak.

3. artikulua.

Udal honek, Zerga honi dagozkion koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, eranskinean agertzen den bezala.

II. ERANSKINA

1. KOEFIZIENTE ETA INDIZEAK

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobre Actividades Económicas con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen el coeficiente e índice de situación, así como las bonificaciones aplicables, habiéndose aprobado definitivamente el 3 de diciembre de 2020 y entrando en vigor el día 1 de enero de 2021.

Artículo 2.

Será de aplicación directa en el Municipio de Oiartzun el Decreto Foral Normativo 1/1993 de 20 de abril, por el que se aprueba el texto refundido del Impuesto de Actividades Económicas, así como la normativa foral que lo desarrolla, en todos aquellos aspectos no regulados en la presente Ordenanza Fiscal y, en concreto, los referidos a determinación del hecho imponible, del sujeto pasivo y de los responsables del tributo, de las exenciones, reducciones y bonificaciones, de la cuota tributaria, del período impositivo y devengo, así como a la gestión del tributo.

Artículo 3.

Este Ayuntamiento fija los coeficientes e índices contenidos, así como las bonificaciones en el anexo.

II. ANEXO

1. COEFICIENTES E ÍNDICES

Koefiziente bakarra finkaturiko kuota minimoak gehitzearena	2,2	Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas
Ondorengo eremu publikoen egoeraren indize bakarra:	1,8	Índice de situación de las siguientes vías públicas:

1480 - ALTZIBAR POLIGONOA
1381 - ARANGUREN POLIGONOA
1386 - ARAÑABURU KALEA
1387 - ARKOTZ KALEA
1649 - ASTIGARRAGAKO BIDEA
1388 - ELBARRENA KALEA
1600 - IHURRITA BIDEA 13
1385 - LANBARREN POLIGONOA
1383 - LINTZIRIN POLIGONOA
1390 - LINTZIRIN-GAINA POLIGONOA
1384 - MAKARRAZTEGI POLIGONOA
1241 - MAKUTSO BIDEA 9
1354 - MALDABURU BIDEA (16 izan ezik) / (excepto el 16)
1389 - MUGARRIEGI KALEA
1352 - N-I ERREPIDEA (1 eta 14) (1 y 14)
1683 - OLAGARAI KALEA
1307 - ORERETAKO BIDEA 21
1580 - PAGOALDEA POLIGONOA
1391 - PERKATZENE KALEA
1382 - TALAIA POLIGONOA
1681 - ZELAIMUSU KALEA
1680 - ZERRADI POLIGONOA
1682 - ZUAZNABAR KALEA
Beste poligono industrialak / Resto de polígonos industriales

Gainontzeko eremu publikoen egoeraren indizea	1,00	Índice de situación del resto de vías públicas

2. HOBARIAK

- Udal kuota ordaintzen duten eta bere industria jarduerak udalerriko gune jendetsuenetik gune industrialetara bere instalazioak eramaten dituzten subjektu pasiboek %30eko hobaria izango dute. Hobari hau gehienez hamar urtez izango da aplikagarria.

- Kuotaren %25eko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean gehitu badute, beti ere langile kopuru totala gutxienez mantendu egin badute.

2. BONIFICACIONES

- Bonificación del 30 % para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y trasladen su actividad a locales o instalaciones alejadas de las zonas más pobladas del término municipal. Esta bonificación se aplicará por un período máximo de 10 años.

- Bonificación del 25 % de la cuota por creación de empleo, para los sujetos que tributen por cuota municipal y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido durante el período impositivo inmediato anterior al de aplicación de la bonificación, en relación con el período anterior a aquél, siempre que al menos hayan mantenido el número total de empleados.

- Kuotaren % 50eko hobaria langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraiobiderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatuarena kasu, sustatzeko.

